

Zortzi pentsagai hizkuntzaren arazoaz

Txillardegi

1. EUSKARA GALDUKO BADA, «EUKADI» DELAKO GEOGRAFI-LURRALDE HORREK EZ DU NAZIO-ASKATASUNERAKO ESKUBIDERIK. Alegia, soziologi mailako herri berezirik ez badago (eta XX. mendean hizkuntza berezirik gabeko naziorik ez dago, estaturik izan badaiteke ere), nazio-arazorik ez dago. Eta sozialistak garen aldetik argutxiagoa Utz ditzagun ipuiak alde batera: Bidasoatik behera denak gaztelaniaz mintzatuko badira, eta Bidasoatik gora frantsesez, Euskal Herria kitto: Bidasoaz alde honetara Aragoi II izango dugu, eta Bidasoaz alde hartara, berriz, Béarn II; alegia, España eta Frantzia. Ez dago hor ez naziotasunik, ez euskaltasunik, eta ez estatu berezirik sortzeko batere oinarririk. Erdaraz: «separatismo gratuito».

2. BURE BURUZAGI ASKOREN ARINKERIA BARKATU EZINA DA. Aski dugu egoera hau proposatzea: Tajo-tik behera, herria arabez; eta Tako-tik gora, frantsesez. Zer izango litzateke hor «España»? Beraz, hizkuntzaren arazoa hil-edo-bizikoa izanik, ulertu ezina da, eta erabat barkatu ezina, «abertzale» omen diren sasi-buruzagi askok euskararekiko kezkarik ez izatea, eta hizkuntzen arazoari buruzko liburririk batere sekula ez irakurtzea.

Jende hori gure instituzioetan jaun eta jabe ikustea, benetako lotsa nacionala da; eta hemendik aurrera baztertzeke ordua iritsia da.

3. GURE HERRIAN % 73-K EZ DU BERE HIZKUNTZA EZAGUTZEN. Nolazpait ezaguturik ere erabiltzen dutenak, askoz gutxiago dira % 27 baino. Ene herronka garbia da: emaidazue kinka horretatik atera di-

ren herrien zerenda. Zenbat? Hona erantzuna: **Israel-ek**. Beste adibiderik ez dago. Hots, guk ez ditugu eman Kristo, Marx, Freud, Levi-Strauss eta beste mila jenio. Guk ez ditugu 6.100.000 aberkide labe krematorioetan galdu. Guk ez dugu nazio-erlijio bat. Gu ez gara ehun hizkuntza desberdinetan mintzo. Gu ez gara juduak. Eta Israel-en adibide horrek ez digu balio. Gure kasua OSO LARRIA DA, guztiz larria. Eta triunfalismorik txikiena, irrespontsabilidade hutsa da. Edo traizio osoa.

4. EUSKARAREKIKO HOZTASUNA, ESKUINDARKERIA DA. Goiko klaseek ekarri dute erdara Euskal Herria, ez herri xeheak. Gaztelania eta frantsesa hemen JAUNTXOEN hizkuntza izan dira; eta oraindik ere, hein handi batez, erdara BURGESIAREN kizkuntza da, eta ez langilariarena. Hastapenean, AITON-SEMEAK ziren erdaldun bakarrak, herri guztiaren kontra. Baina inperialismoak bere fruitua eman-ala, egoera nahasiago agertzen hasi da. Azkeneko urteetan etorri den langile-jendetza gaitza, **guri kalte egitera ez etorria**, EUSKAL BURGESIAREN NEGOZIOAK hazteko ekarri zuten, fazismoaren bedeinkazio isilarekin. Ni neu ere etorkinen seme naiz, ene izenean ongi ageri denez. Etorkinek gure NAZIOTASUNA behar dute bere egin; eta hemen ez zaio inori odol edo jaioleku berezirik eskatzen. Hemen ABERTZALETASUNA eskatzen zaigu denoi, inperialismoaren esperantzak hondatzeko.

5. EGOERA DIGLOSIKOAN DAGOEN HIZKUNTZA ORO SUNTSITZEN DA. Ez euskara bakarrik. Hizkuntzen geroa sozio-linguisti-

kan jokatzen da, eta politikan eta ekonomian beraz. Gaur euskara «lengua oficial» omen da «Vascongadetan». Baina CGV-ak berak kondenuatu ditu Errenderiko eta Hondarribiko udaletxeak; eta euskararengatik kondenuatu. Beren pratikan, bestalde, egunero kondentzen dute «abertzale» omen diren taldeek, organizazioek eta alderdiek. Eta diglosiaren kontrako neurriak esijitu genituen euskaltzaleok, BOTA egin gaituzte partidu «abertzale» etatik. Eta ez da ezer gertatu! Fartsa eta fartsante hauek salatu beharra dago.

6. HIZKUNTZEN GORABEHERRAK LUZAROAN MAMITZEN DIRA. Hizkuntz egoera, hortaz, ez da kolpez aldatuko; eta Linguistikaz arduratzen garenek dakigu hori inork baino hobeki. Aldakuntza handirik ez ikustek, beraz, ez gaitu batere harritzen. Baina diglosiaren kontrako lehenengo urratsak harturik ez ikustek kezkatzen gaitu.

7. ZEIN ERABAKI? Hona hemen funtsezko batzu:

a) Eskolatik Euskal Herriko haur guztiak **elebidun irtetea**. Gauza bat da helburu hau lortzen zaila izatea (irakaslerik eza, eta abar); eta beste bat helburua beraukatzea.

b) **Irrati bat** egun osoan barrena euskaraz. Hau berehala. Eta pisikana, baina atzo hasita, **euskal telebista kate bat** egun osoan barrena ere euskara hutsez.

c) **Administrazioa** lau hiriburuetan, nazio-mailako bulegoetan eta ministerietan, gutxienez ZERBITZUEN mailan, **elebiduna izatea**. Gauza bera, noski, euskara suntsitua ez den udaletan.

d) Homen arauera, eta areago jakina, **organizazio ABERTZALEETAN** (alderdi, erakunde) **buruzagiak eta funtzionario liberatuak ELEBIDUNAK** izatea. Hau ere gaurte esku behar da; behin eta berriz agindua izan den bezala. Beren burua arriskutan ez jartzekotan erabaki hauek freinatzen ari diren gizon publikoak, barkatu ezinak dira.

8 EUSKARARIK GABE, EUSKADIRIK EZ. Alde batetik, jakina, horrelakorik nahi ez dugulako. Baina bestetik ere, eta hau ez da maiz esaten, euskararik gabeko «Euzkadi» horrek errealitate soziologikorik ez lukeelako; eta, udazkeneko hosto ihartua bezala, lehenengo haize bolaran **BEREZ ERORI ETA DESEGIN** egingo litzatekeelako. ■